# Xedapen Orokorrak

**LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA EKONOMI ETA OGASUN SAILA GARRAIO ETA HERRILAN SAILA**

**2359**

214/1994 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Larrañetatik La Escontrillarako funikularraren ustiaketa «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» sozietate publikoari eratxekitzezkoa.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 atalak Autonomi Elkarteari konpetentzia esklusiboa ematen dio, besteak beste, trenbide eta trenbidezko garraioaren alorreko gaiei dagokienean.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomi-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak, 6. atalaren 1. lerroaldian ezartzen du Autonomi Elkarteari dagozkionak izanik, Estatutu horretan, Lege honetan edo geroagokoren batean Lurralde Historikoetako Foru Organoei aitortu edo izendatzen ez zaizkien gai guztiei buruzko legegintza edo egiterapena Autonomia Elkarte Osorako Erakundeei dagokien agintepidea dela. Trenbide eta trenbidezko garraio arloan horrela gertatu denez, martxoaren 5eko 19/1985 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioari eskualdatu zizkion Larrañetatik La Escontrillarako funikularrari zegozkion eginkizun eta zerbitzuak.

Geroztik zerbitzu hori Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak ematen du eta organikoki Garraio Zuzendaritzako Garraioaren Gestio eta Zaintzarako Zerbitzuaren menpe dago.

Garraio eta Herrilan Sailaren menpeko garraio zerbitzuen gestioaren hobekuntzak komenigarri egin zuen egin berri den «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» sozietatearen xedearen aldaketa, besteak beste, sozietateak Dekretu bidez agintzen zaizkion trenbidezko garraio zerbitzuak ustia ditzan ahalbidetzeko.

Dekretu honen helburua da sozietate publiko horri Larrañetatik La Escontrillarako funikularraren ustiaketa eratxekitzea, horretarako, urtarrilaren 25eko 56/1994 Dekretuaren 1.1.a) atalean xedatutakoari jarraikiz.

Ondorioz, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren, Ekonomia eta Ogasun sailburuaren eta Garraio eta Herrilan sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko ekainaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO, DE ECONOMIA Y HACIENDA Y DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS**

**2359**

DECRETO 214/1994, de 21 de junio, por el que se atribuye a la Sociedad Pública «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» la explotación del Funicular de La Reineta a La Escontrilla.

El artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco confiere a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva, entre otras, en materia de ferrocarriles y de transporte por este medio.

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, establece en el párrafo primero del artículo 6 que es competencia de las Instituciones Comunes la legislación y ejecución en todas aquellas materias que, correspondiendo a Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se reconozcan o atribuyan en el Estatuto, en dicha Ley u otras posteriores, a los Organos Forales de los Territorios Históricos. Por concurrir tal circunstancia en materia de ferrocarriles y de transporte ferroviario, mediante Decreto foral 19/1985, de 5 de marzo, la Diputación Foral de Bizkaia traspasó a la Administración de la Comunidad Autónoma las funciones y servicios correspondientes al Funicular de la Reineta a La Escontrilla.

Desde entonces y hasta hoy dicho servicio viene siendo prestado por la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dependiendo orgánicamente del Servicio de Gestión y Tutela del Transporte de la Dirección de Transportes.

La mejora y optimización de la gestión de los servicios de transporte dependientes del Departamento de Transportes y Obras Públicas aconsejaron la reciente modificación del objeto social de la Sociedad «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» con el fin, entre otros, de posibilitar la explotación por la Sociedad de aquellos servicios de transporte por ferrocarril que se le encomendasen por Decreto.

El presente Decreto tiene por finalidad atribuir a dicha Sociedad Pública la explotación del Funicular de La Reineta a La Escontrilla, siguiendo al efecto lo dispuesto en el artículo 1.º.1.a) del Decreto 56/1994, de 25 de enero.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, Economía y Hacienda y, de Transportes y Obras Públicas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de junio de 1994,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» sozietate publikoari eratxekitzea Larrañetatik La Escontrillarako funikularreko garraio zerbitzuaren ustiaketa.

*2. atala.*– Egun edo etorkizunean Larrañetatik La Escontrillarako funikularraren ustiaketak hartzen edo bereganatzen dituen ondasun eta eskubideek jabari publikoko ondasunen erregimena izango dute eta sozietateak izango du ematen zaizkion haien gaineko zaintza, gestio, administrazio eta polizia ahalmenak.

*3. atala.*– Sozietateak Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorraren ordezkotza hartuko du aipatu trenbide zerbitzu horren ustiaketak ukitzen duen langilegoari dagokionean, bai eta ustiaketa horretatik eratorritako edonolako eskubide eta betebeharretan ere.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indarrik gabe geratzen dira Euskal Autonomi Elkartean prezio publikoen bidez ordainarazi daitezkeen ondasun, zerbitzu eta iharduerak zehazten dituen abenduaren 28ko 337/1990 Dekretuaren Eraskineko 11. idazatiak jasotzen duen «Larrañetako funikularreko bidaiari eta merkatalgaien garraio zerbitzuak» aipua, Larrañetako funikularreko garraio zerbitzuaren prezio publikoak finkatzen dituen Garraio eta Herrilan sailburuaren 1993ko irailaren 9ko Agindua eta Dekretu honen kontrako beste edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENETAN LEHENA

Baimena ematen zaie Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko, Ekonomia eta Ogasun Saileko eta Garraio eta Herrilan Saileko organo aginpidedunek, bakoitzak bere aginpideen eremuan, Dekretu honen garapenerako behar diren erabaki eta aginduak eman ditzaten.

AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENA

Dekretu honek 1994ko uztailaren 1ean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko ekainak 21.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta
Autonomi Garapenerako sailburua,
JOSEBA M DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.

Ekonomia eta Ogasun sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

Garraio eta Herrilan sailburua,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se atribuye a la Sociedad Pública «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» la explotación del servicio de transporte del Funicular de la Reineta a La Escontrilla.

*Artículo 2.*– Los bienes y derechos que en la actualidad o en el futuro se incorporen o afecten a la explotación del Funicular de la Reineta a La Escontrilla mantendrán su régimen de bienes de dominio público, ejercitando sobre ellos la Sociedad las facultades de tutela, gestión, administración y policía que le sean conferidas

*Artículo 3.*– La Sociedad se subrogará en la posición de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación al personal afecto a la explotación del citado servicio ferroviario, así como en los derechos y obligaciones de cualquier género derivados de dicha explotación.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogados la mención a los «Servicios de transporte de viajeros y mercancías del Funicular de La Reineta» contenida en el apartado 11 del Anexo del Decreto 337/1990, de 28 de diciembre, por el que se determinan los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Orden de 9 de septiembre de 1993, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se fijan los precios públicos del servicio de transporte del Funicular de La Reineta, y cualquier otra disposición que se oponga al presente Decreto.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

En el ámbito de sus respectivas competencias, se autoriza al dictado por los órganos competentes de los departamentos de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, de Economía y Hacienda y, de Transportes y Obras Públicas de las resoluciones y órdenes que sean precisas para el desarrollo del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

El presente Decreto entrará en vigor el 1 de julio de 1994.

Dado en Vitoria-Gateiz, a 21 de junio de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen
Jurídico y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.

El Consejero de Economía y Hacienda,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

ERASKINA

EGUN LARRAÑETATIK LA ESCONTRILLARAKO FUNIKULARRAREN USTIAKETARI ATXEKITA DAUDEN EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ADMINISTRAZIOAREN JABARI PUBLIKOKO ONDASUNEN ZERRENDA

Escontrilla, beheko geltokia:

| ONDASUN ETA ESKUBIDEAK | AZALERA | OHARRAK |
|---|---|---|
| – Eraikina | 330 m.² | Bi solairu: behe solairua (servicios comunales) y 1.ª (etxebizitza) |
| – Lurrak | 1.907 m.² | Geltokiaren ondoan |
| – Zubi-garabia | | 1,5 CV |
| – Baskula | | 10 Tn arteko ibilgailuak pisatzeko. |

La Reineta, goiko geltokia:

| ONDASUN ETA ESKUBIDEAK | AZALERA | OHARRAK |
|---|---|---|
| – Eraikina | 350 m.² | Sotoa eta hiru solairu: sotoa (makina aretoa), behea (guztiontzako zerbitzuak) 1. eta 2.a (etxebizitzak). |
| – Lurrak | 2.200 m.² | Geltokiaren eraskinak. |

Instalakuntza mugikorrak:

| ONDASUN ETA ESKUBIDEAK | AZALERA | OHARRAK |
|---|---|---|
| – Ibilgailuak | 26,61 m.² | 2, plataforma gaineko kabina desmontagarriarekin. |

Instalakuntza finkoak:

| ONDASUN ETA ESKUBIDEAK | AZALERA | OHARRAK |
|---|---|---|
| – Burnibide lauguneko lurrak | 5.220 m.² | |
| – Trakzio makinak | | 150 CV-ko eta 575 e/m bi motor |
| – Kablea | 1.320 m.l. | 35 mm-ko diametroa. |
| – Karrilak | 2.610 m.l. | Buru konikoa, 28 kg/m-ko, 12 m-nako barratan. |
| – Zeharragak | | Ormigoizko oinarriko metaliko anguludunak. Burnibide metroko bat. |
| – Poleak | | 276 unitate |
| – Bateri kargatzaileak | | 2 (geltoki bakoitzean bana) |

Biltegia:

| ONDASUN ETA ESKUBIDEAK | AZALERA | OHARRAK |
|---|---|---|
| – Karrilak | | 28 unitate |
| – Poleak | | 20 unitate, aldaketarako. 28 unitate, bihurgunekoak. 36 unitate zuzenekoak. |
| – Errodalak | | 2 unitate oso |
| – Bandaiak | | 1 erlaitz bikoitzekoa eta 1 laua edo sinplea. |
| – Tresnak | | Mantenimendurako hainbat material |

*ANEXO*

*RELACION DE BIENES DE DOMINIO PUBLICO DE LA ADMINISTRACION DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI AFECTOS EN LA ACTUALIDAD A LA EXPLOTACION DEL FUNICULAR DE LA REINETA A LA ESCONTRILLA*

*Estación inferior La Escontrilla:*

| BIENES Y DERECHOS | SUPERFICIE | OBSERVACIONES |
|---|---|---|
| – Edificio | 330 m.² | Dos plantas: baja (servicios comunales) y 1.ª (vivienda) |
| – Terrenos | 1.907 m.² | Anexos a la Estación |
| – Grúa Puente | | 1,5 CV |
| – Báscula | | Pesaje de vehículos 10 Tn. |

*Estación superior La Reineta:*

| BIENES Y DERECHOS | SUPERFICIE | OBSERVACIONES |
|---|---|---|
| – Edificio | 350m.² | Sótano y tres plantas: sótano (sala de máquinas), baja (servicios comunales) 1.ª y 2.ª (viviendas) |
| – Terrenos | 2.200m.² | Anexos a la Estación |

*Instalaciones móviles:*

| BIENES Y DERECHOS | SUPERFICIE | OBSERVACIONES |
|---|---|---|
| – Vehículos | 26,61 m.² | 2, con cabina desmontable sobre plataforma |

*Instalaciones fijas:*

| BIENES Y DERECHOS | SUPERFICIE | OBSERVACIONES |
|---|---|---|
| – Terrenos explanación de vía | 5.220 m.² | |
| – Maquinaria de tracción | | 2 Motores de 150CV y 575 rpm. |
| – Cable | 1.320 m.l. | 35 mm. de diámetro |
| – Carril | 2.610 m.l. | Cabeza cónica 28kg./m., en barras de 12m. |
| – Traviesas | | Metálicas angulares s/base de hormigón: 1 por m. de vía. |
| – Poleas | | 276 unidades. |
| – Cargadores batería | | 2 (uno en cada estación). |

*Almacén:*

| BIENES Y DERECHOS | SUPERFICIE | OBSERVACIONES |
|---|---|---|
| – Carriles | | 28 unidades |
| – Poleas | | 20 unidades de cambio<br>28 unidades de curva.<br>36 unidades de recta |
| – Rodales | | 2 unidades completas |
| – Bandajes | | 1 de doble pestaña y 1 plano o sencillo |
| – Utillaje | | Diverso material de mantenimiento |